

1963an, Gasteizko Guduaren 150. urteurreneko ospakizunak zirela-eta, "El Portalón" eraikin historikoan erakusketa bat antolatu zen, Independentzia Gerrarekin eta bereziki Gasteizko Guduarekin zerikusia zuten arma, agiri eta beste zenbait gauza erakusteko. Erakusketa horren arrakastaren ondorioz, erabaki zen funts horiek iraunkorki erakutsi behar zirela. Hori dela -ta, Félix Alfaro Fournierrek, 1966an, dohaintza eman zion Arabako Foru Aldundiari bere funts osoa, eta urte horretan bertan inauguratu zen Arabako Arma Museoa Gobeo-Gebara San Juandarren arma etxean, Gasteizko alde zaharrean.

Bilduma hazi egin zen, eta kokaleku berria aurkitu behar izan zen. Ajuria Eneko pilotalekua eta zaindari etxea egokitu ziren, hala, Arma Museoaren egoitzatarako, eta 1975an inauguratu zen.

Arabako Arma Museoak armen historia eta bilakaera erakusten du, gizateariaren hasiera-hasierako garaietatik hasi eta XX. mendearen hasiera arte. Arma batzuk erasorako eta defentsa pertsonal eta kolektiborako, eta beste batzuk ehizarako, jolaserako, trebatzeko edo erakusketarako, denek erakusten dute uneko teknologiarik aurreratuenak; beste asko balio artistikoarengatik nabarmentzen dira.

Bildumaren zati handiena Europako armek osatzen dute, baina badira Afrikakoak eta Ekialdekoak ere, eta bai ere uniformeak, ohore dominak, medailak eta txanponak.

Bereziki aipagarria da 1813ko Gasteizko Guduari buruzko atala, gertakari harekin zerikusi zuzena duten material interesgarrien bidez argitua.

Arabako
arma
museoa

Frai Francisco ibilbidea, 3
01007 Vitoria-Gasteiz
945 18 19 25
museoarma@araba.eus

ORDUTEGIA
Asteartetik larunbatera
10:00 - 14:00 / 16:00 - 18:30
Igande eta jaiegunetan
11:00 - 14:00
Asteleheneretan itxita (jaiegunetan izan ezik)
Astelehena jaieguna izan bada, asteartean itxita



Malaysiako krisa.
XIX. mendea.
Kris malayo.
Siglo XIX.

Kirten armak.
XVI -XVII. mendeak.
Armas de asta.
Siglos XVI-XVII.

Gurpil giltza duen pistola
alemaniarra. XVI -XVII. mendeak.
*Pistola alemana de llave
de rueda.* Siglos XVI-XVII.

Gerra eta ehiza
balezta alemaniarra.
XVI. mendea.
*Ballesta alemana
de guerra y caza.*
Siglo XVI.

Alaba jeneralaren bi puntako
kapela eta kutxatila. c. 1813.
*Bicornio con estuche del
General Álava.* c. 1813.

Pompeo Della Chiesa
eskolako armadura milandarra.
XVI -XVII. mendeak.
*Armadura milanese de la
escuela de Pompeo Della Chiesa.*
Siglos XVI-XVII.

Arabako
arma
museoa